

BALIO PROPOSAMENA

Nahia Lopez, Unai Garcia, Ixone Reyes eta Marta Estevez

Gure aplikazioaren bidez emakumeek sufritzen dituzten beldur edo oztopo batzuk konpontzea bilatzen dugu, emakumeon arteko gune seguruak eta elkartasuna bermatuz.

Guk, emakumeak izanda, maiz emakumeei bakarrik bideratutako gune seguruen falta somatu izan dugu. Emakumeoi bideratutako baliabide gehienak behar zehatzei bideratuta daude (etxebizitzak, laguntza telefonoak, talde-terapiak...), baina ez dago aisialdi, kirol edo gozamen-jarduerak eskaintzen dituen proposamenik.

Hortaz, gure proposamenak aisialdi talde seguruen beharra konponduko du, askotariko ekintzak eskainiz eta emakume bakoitzak gustukoenetan parte hartuz, nolabaiteko elkartasuna eta elkarbizitza sortuz gure arteko ahalduntzea garatzen den bitartean.

Akelarreren berezitasuna da emakumeok sortua dela, kontuan hartuta kolektibo honen beharrak eta hauei egokituta intereseko jarduerak eta ekintzak eskainiz. Hortaz, esan daiteke oso proposamen pertsonalizatua eta esanguratsua dela, errealitateari egokitua.

Gainera, aplikazioan izen ematea doakoa izango da erabiltzaileentzat. NANaren bitartez egiaztatuko dugu soilik emakumeek aplikazioan izen-eman dutela, datu-pertsonalak guztiz konfidentzialak eta isilpekoak izanik.

Finantziazioa diputazioaren aldetik etorriko da, proposamen publikoa eta gizarteko behar bati erantzuna ematera bideratuta egonik honen alde egin nahi dute eta. Izena ematen duen erabiltzaile bakoitzagatik diru-sarrera handiagoak izango ditugu.

Hau izango da gure aplikazioaren diseinua eta gure proiektuaren identifikagarria izango dena, antzinatek egokitu zaigun sorgin eta akelarrearen irudiari men eginez:

